



Blitz
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma
Sorta
horia



Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean

Bi adibide praktikiko



**Nafarroako
Gobernua**

Dokumentu hau "Ulermeneko irakurketa DBHko curriculumean" delako Mintegiak itxuratu du, honako irakasle hauen partehartzearekin:

«Pablo Sarasate» BHI

José Resano (koordinatzailea), Amaya Aguinaga, Charo Alcalde, Isabel Alquezar, Domingo Díez, Feli Fernández, Rosa Flores, Adolfo García, Pedro Jiménez, Berta Lázaro, Alicia Ramos, José Resano, M.ª Eugenia Suescun, M.ª Asun Ulzurrun, Javier Vergara eta Joaquín Cáceres

«Alhama» BHI

Cristina Conde (koordinatzailea), Olga Blanco, Francisco del Campo, M.ª Ángeles García eta M.ª José Labarda

«La Paz» BHI

Rafael Rodríguez



 **Blitz** sorta horia

.....

Nola prestatu ulermeneko irakurketa plana DBH-ko institutu batean

Bi adibide praktiko

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

BILDUMAREN ARDURADUNA
Curriculum Diseinu eta Garapenerako U.T.

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
Castuera Industrias Gráficas, S.A.

L.G. NA - 2.699/2003

ISBN 84 - 235 - 2452 - 3



.....

**Nola prestatu ulermenezko
irakurketa plana DBH-ko
institutu batean**

Bi adibide praktikiko

.....

AURKEZPENA

Nafarroako Ulermenezko Irakurketa Planaren helburua da gure ikasleak, ikasketak amaitzean, haien adinari dagozkion eta haien giza garapenerako eta garapen profesionalerako beharrezkoak izango dituzten hizkuntz gaitasunen jabe izatea.

2002 urtean Hezkuntza Departamentuak hainbat arau eman zituen Lehen eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetan ulermenezko irakurketa garatzeko (583/2002 Ebazpena, uztailaren 15koa, eta 527/2002 Ebazpena, uztailaren 27koa, hurrenez hurren). Bi ebazpen hauek, Nafarroako Ulermenezko Irakurketa Planaren oinarritzko printzipioekin batera, *Blitz irakurketarekin* sail horiko lehen alean argitaratu ziren, *Blitz, liburutegiko saga* bildumaren baitan.

Sail horiko ale berri honetan azaltzen da zein prozedurari jarraitu dioten Lodosako «Pablo Sarasate» BHIko irakasleek, alde batetik, eta Corellako «Alhama» BHI eta Cintruenigoko «La Paz» BHIkoek, bestetik, Ikastetxeko Irakurketa Plana prestatzeko. Bi proiektuok lehen eta bigarren sariak jaso zituzten 2002-2003 ikasturteko Irakurketaren Sustapen Sarien deialdian, Bigarren Hezkuntzako modalitatean. Lan honetan aurkeztu zuten oroitidazkiaren zati bat bakarrik agertzen da, Ikastetxeko Irakurketa Plana nola prestatu zen azaltzen duena, hain zuzen ere.

Ikastetxe hauetako arlo guztietako hainbat irakaslek *Ulermenezko irakurketa DBHko curriculumetan* izeneko prestakuntza-mintegian parte hartu zuten, eta bertan proiektu hau prestatu zuten. Baina proiektu hau ez da ikasturte honetako lanaren emaitza soilik, urte askotako etengabeko ahaleginen emaitza baizik.

Irakasle hauek haien ikasleen artean irakurriaren ulermen maila areagotzeko eta irakurtzeko ohitura sustatzeko konpromisoa hartua dute eta horretan ahalegintzen dira. Era berean, sinetsita daude ulermenezko irakurketa ez dela landu behar hizkuntzaren arloan bakarrik, ikasleek gelan emandako azalpenak eta testu idatziaren esanahia ulertzeak arlo guztietan baitu eragina.

Hona hemen bi eredu, ilusio bera duten irakasleei baliagarriak izan dakizkien.

Luis Campoy Zueco
HEZKUNTZA KONTSEILARIA




AURKIBIDEA



Orrialdea

7	1. IRAKURKETA SUSTAPEN SARIAK. LEHEN SARIA. LODOSAKO «PABLO SARASATE» BHI
8	1.1 Irakurketa planaren oinarritzko printzipioak
9	1.2 Irakurriaren ulermenari buruzko ohartarazpen orokorrak
10	1.3 Irakurriaren ulermena lantzeko orientabide didaktikoak
11	1.4 Irakurriaren ulermena ikasgelan aplikatu
13	1.5 Datorren ikasturterako proiektuak
15	Eranskina. Irakurriaren ulermenaren eredia. PISA proiektua
17	2. IRAKURKETA SUSTAPEN SARIAK. BIGARREN SARIA. CORELLAKO «ALHAMA» BHI - CINTRUENIGOKO «LA PAZ» DBHI
18	2.1 Ulermenezko Irakurketari buruzko Mintegiko akten laburpena
20	2.2 Ikastetxeko Irakurketa Plana zabaltzeko foileto bat prestatu
25	2.3 Ulermenezko Irakurketari buruzko Galdetegia ikastetxeko irakasleendako



IRAKURKETAREN
SUSTAPEN SARIAK. LEHEN SARIA.
LODOSAKO «PABLO SARASATE» BHI



Lan hau Lodosako «Pablo Sarasate» BHIko irakasle talde batek prestatu du. Talde hori curriculumeko hainbat arlotako (Matematika, Ingelesa, Gaztelania, Latina, Natur Zientziak, Frantsesa, Gorputz Hezkuntza, ...) 15 irakaslek osatu dugu, eta denok ere «Ulermenezko irakurketa DBHko curriculumetik» izeneko prestakuntza mintegian parte hartu genuen 2002-2003 ikasturtean.

Gure helburua zen gure ikastetxeari egokitutako irakurketa plan bat prestatzea eta arlo guztiendako irizpide komun batzuk ezartzea. Ondoren, irizpide horiek departamentu didaktiko bakoitzari egokitu beharko litzaizkioke, departamentu horiek prestatzen baitituzte helburuak, edukiak eta irakurketa jarduerak.

Gure ustetan plan honek xumea eta errealista izan behar zuen, eta irakasleek eguneroko lanean aplikatzen dituzten irakurketa praktika egokien sustapenean oinarritu behar zuen, eta ez printzipio teoriko nagusietan, hauek ere beharrezkoak diren arren.

Plan hau prestatzeko PISA proiektuaren irakurria ulertzeko eredu teorikoari jarraitu gataizkio (ikus eranskina).

Lehenengo eta behin 527/2002 Ebazpena, ekainaren 27koa, irakurtzeari ekin genion. Ebazpen honek *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak* ematen ditu. Irakurri ostean eztabaida interesgarria piztu zen. Azkenean denok ontzat eman genuen aipatu ebazpena bere osotasunean. (ikus *Blitz, liburutegiko saga* bildumako *Blitz irakurketarekin* sail horiko I. zkia).

Ondoren, Hezkuntza Departamentuak prestatutako Irakurketa Planaren printzipio orokorrak (aipatu agirian azaltzen direnak) gure ikastetxeko ezaugarrietara egokitzeari ekin genion, segidan azaltzen den moduan:

1.1 Ikastetxeko irakurketa planaren oinarrizko printzipioak

«Pablo Sarasate» BHIko irakasleok:

1. Irakurriaren ulermena bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, ikaskuntza ororen oinarria baita, ahozko nahiz idatzizko komunikazioa hobetzen lagundu eta jarrera kritikoa suspertzen baitu, eta, finean, ikasleen garapen pertsonalari laguntzen baitio.
2. Uste dugu irakurriaren ulermenari buruzko jarduerak gelako eguneroko jardunean txertatu behar direla eta arlo bakoitzaren ezaugarri eta beharrei erantzun behar dietela.
3. Uste dugu ulermenezko irakurketa idazmena eta mintzamenarekin batera landu behar direla curriculumeko arlo guztietan.
4. Uste dugu lan hau ez dagokiola Hizkuntza arloari soilik, curriculumeko arlo guztien parte hartzea beharrezkoa dela baizik.

5. Uste dugu beharrezkoa dela familiak inplikatzeko, haien seme-alaben irakurriaren ulermena hobetzeko xedearekin. Horrenbestez, irakaslearen eginbeharra da Ikastetxeko Irakurketa Plan honen berri ematea eta haien laguntza eskatzea.
6. Arlo guztietako irakasleok indarrak batu nahi ditugu, ikaslearen irakurriaren ulermena hobetzeko xedearekin.
7. Irakurketa estrategiak prestatuko ditugu elkarrekin, ondoren ikasgelan era koordinatuan abian jartzeko, arlo bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz.
8. Irakurriaren ulermena lantzeko jarduerak prestatuko ditugu, arloka, zikloka eta kurtsoka. Jarduera horiek ikastetxeko irakurketa planaren printzipioak hartuko dituzte oinarritzat.
9. Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak antolatuko ditugu, Ikastetxeko Irakurketa Planaren baitan.
10. Ikastetxeko liburutegiko baliabideak erabiliko ditugu, eta horretarako fondoak antolatzen eta eguneratzen lagunduko ditugu.

1.2 Irakurriaren ulermenari buruzko gogoeta orokorrak

Ondoren, gure ikastetxean irakurriaren ulermenak zituen arazoaren eta gabeziaren gaineko hausnarketa orokor batean murgildu ginen. Prozesu horretan izandako gogoetak hurrengo atalean laburbildu ditugu.

Gure ustetan beharrezkoa da:

- DBHko kurtso guztietarako eta arlo guztietarako irakurgaiak hautatzea, edukiaren eta hiztegiaren zailtasuna maila kontuan hartuz.
- Gure ikaslearen irakurriaren ulermen maila ezagutzea eta testu desberdinei egokitzen zaizkien irakurtzeko teknika argiak eta errazak irakastea, zailtasun mailak ez ezik irakurketaren helburua ere kontuan hartuz.
- Ikaslearen artean jarrera arazoak badirela onartzea: ez dakite entzuten, ez dituzte ulertzen irakasleak eginiko galderak, ezta haren azalpenak ere.
- Plana aurrera daramaten irakaslearen irakurketa praktiken jarraipena egitea, kanpoko adituen laguntzarekin.
- Atazak ez bikoiztea, eta gure arlo eta metodologietatik hurbil dauden estrategiak bilatzea.
- Ulermenaren prozesua oso konplexua dela eta bakoitzaren ulermena bere gaitasunaren arabera dela ulertzea. Horregatik ikasleei lagundu behar diegu euren zailtasunak gainditzeko.
- Testuak ulertzea ahalbidetzen duen prozesu mentala norberarena eta berezkoa dela onartzea. Hala ere, ikasleei irakatsi behar diegu estrategiak eta teknikak erabiltzen, hizkuntz gaitasunak garatu eta euren egitura mentalera egoki ditzaten.
- Ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo sortzen diren irakurtzeko aukerak baliatzea: tutoretzak, ikasgelako lanak, etxko lanak, etab.

.....

- Testuliburuetakoa mintzaira eta egitura aztertzea, baita idatz-zatien egitura ere; testua induktiboa edo deduktiboa den ikustea; izenburuak eta abar egokiak diren aztertzea; eta atal edo ariketa bakoitzean zer ez den ulertzen ikustea.
- Irakurketari buruzko jarduera praktikoak prestatzeari ekitea, eztabaidatzen ari garen teoriak eta ikasgelako errealitatea uztartuko dituztenak (*ideiei hankak jarri*).

Gogoeta hauetatik abiatuta, irakurriaren ulermena praktikan jartzeko hainbat orientabide didaktiko prestatu genituen.

1.3 Irakurriaren ulermena lantzeko orientabide didaktikoak

1. Irakurketa planak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da departamentu didaktikoetako irakasleen parte-hartzea. Honako eginkizunak izango dituzte:
 - Eskolako eta eguneroko laneko testuinguruan txertatuko diren irakurketa jarduerak prestatu, arlo bakoitzaren ezaugarriei egokitzen zaizkienak eta ikastetxeko irakurketa planaren helburu orokorretan oinarritzen direnak.
 - Gainerako departamentuekin estrategiak eta baliabideak partekatu, ahal den heinean adostasunak lortu eta haiekin batera jardun.
 - Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak proposatu, kurtsoka eta zikloka.
 - Liburutegiko baliabideak baliatu eta fondoak eguneratu.
2. Ez dugu ahaztu behar Planaren azken xedea ikasleak irakurtzera bultzatzea dela, benetako protagonistak ikasleak direla. Beraz, formula erakargarri eta motibatzaileak aurkitzen ahalegindu behar dugu, batzuetan ikasleei testu sobera aspergarriak eta errepikakorrek eskaintzen baitizkiegu, eta horrela kontrako efektua lortzeko arriskua baitugu.
3. Horretaz gain, irakasleek estrategia komunak ezarri behar dituzte irakurriaren ulermen arazoak dituzten ikasleei laguntzeko. Laburbilduz, ondokoak izango lirateke:
 - Testuak xehetu, ulertzea lortu arte.
 - Ez konformatu ikasleek testuak errepikatzearekin edo buruz ikastearekin.
 - Sistematikoki ziurtatu ikasleek testua benetan ulertu duten.
 - Hiztegia aztertu.
 - Ikasleei eskolako ohiturak aldarazi: ulertu ez dutena galdetzerara edo kontsultatzerara ohituratu daitezela, benetan ulertu ez badute ez diezagutela esan ulertu dutela, etab. Horretarako, irakasleak bere ikasleak galdera egitera bultzatu behar ditu, ez du aurpegi ilunik jarri edo iruzkin desegokirik egin behar, ikasleak lotsatuta sentitzea saihestu behar du, barregarri geratzeko edo besteen esanari beldurra kentzen lagundu behar die, etab.
 - Ikasleren batek ez badu testu bat ulertu, beste era batean azaldu edo beste ikasle bati azaltzeko eskatu.

- Ikasleei ulertarazi nolako garrantzia duen irakurtzen dutena ulertzeak haien ikaskuntzan, eta ezagutzen ez dituzten hitzak hiztegian bilatzen ohituratuarazi, irakasleari galdetu beharrean.
 - Ikasleek ahalegindu behar dute hitzen esanahia testuingurutik abiatuta ondorioztatzen edo hitzaren etimologia bilatzen. Horretarako, proposatzen dugu ikasgela bakoitzean hiztegi bat izatea, askotan ez baitaude edo daudenak hondatuta baitaude.
 - Beharrezkoa dirudi ikasgelan hainbat hiztegi izateak: hizkuntzetakoak, zientifikoak, matematikakoak, etimologikoak, etab.
 - Glosario komun bat prestatzea ere prosatzen dugu, koaderno alfabetiko batean egina, arlo bakoitzeko termino komunak eta haien esanahiak biltzeko.
4. Oso garrantzitsua da ikasleen artean irakurtzearen kultura hedatzea eta ikasleei irakastea irakurriaren ulermena garrantzitsua dela eta irakurtzeak ahalegina eskatzen duela, baina era berean atsegingarria ere badela.
5. Halaber, komeni da ozenki irakurtzea, ongi irakurtzeak ulertzen laguntzen baitu, eta ikasleak testua ulertu duen jakitea ahalbidetzen baitigu. Ikasleren batek aldeaz aurretik landutako testu bat ozenki irakurtzen badu, eta doinurik gabe, etenak errespetatu gabe, hitzak aldatuz, etab. irakurtzen badu, ez duela testua ulertu adierazten du; beraz, akatsak antzemateko estrategia gisa erabil daiteke. Horretaz gain, ozenki irakurtzeak ahoskera eta jendaurrean aise eta egoki mintzatzeko gaitasuna hobetzeko balio du, eta ikasleari bere lan etorkizuna prestatzen laguntzen dio (berehalako etorkizuna, hainbat kasutan). Irakurketa ozena beharren arabera egitea proposatzen dugu, mailaka eta arloka. Gure ustetan, ozenki irakurtzeak, ongi planteatuta eta trebetasunez eginez gero, ikasleari lotsa eta barregarri gelditzeko beldurra gainditzen laguntzen dio.

1.4 Irakurriaren ulermena ikasgelan aplikatu

Beharrezko gogoetak eta aipatu orientabideak prestatu ostean, agiri praktikoa bat lantzea hartu genuen helburu, honako alderdiak ikasgelan lantzen hasteko:

Testuliburuetakoa ikasgaiak edo unitate didaktikoak ulertuz irakurtzeko ondokoa egin behar da:

- Testuak arretaz irakurri.
- Testuaren ulermenari buruzko galderak egin ikasleei, gabeziak antzemateko.
- Ikasleen aurpegiak eta keinuak behatu.
- Hiztegia aztertu.
- Ikasleek aurretik dituzten ideiak aktibatu.
- Irakurritako testua beste esperientzia batzuekin lotu.
- Paragrafo bakoitza xehatu.

.....

- Laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin.
- Ideia nagusia atera.
- Testuak defendatzen duen tesia atera.
- Paragrafoei beste izenburu batzuk jarri.
- Testua laburbiltzen duten marrazkiak egin.
- Testua berriro isilka irakurri.
- Testua ozenki irakurri eta entzun, ulertzeko ahalegina egin.
- Laburpenak, eskemak, marrazkiak eta abar egin.

Ikasleek ez dutela ulertu ezkutatzeko ohitura baztertze, irakasleek ondokoa egin behar dute:

- Ikasleek barregarri geratzeko beldurra gaindi dezaten saiatu. Lotsatiak, batez ere, kontuan hartu.
- Ikasleei galderak egiteko aukera eman.
- Ez oihukatu, haserretu edo aurpegi iluna jarri; jarrera ulerkorra izan.
- Ikasleak parte hartzera bultzatu.
- Pazientzia hartu, gauzak bestela azaldu edota beste ikaskide batzuen azalpenak baliatu.
- Ikasleei zeharka (idatziz) galderak egiteko bidea erraztu.
- Isiltasun eta arreta giroa sortu.

Ikasgelan parte-hartze giroa izan dadin, irakasleek ondokoa egin beharko dute:

- Hitz egiteko txandak errespetatu.
- Entzuten ikasi.
- Hitz egin aurretik pentsatu; horretarako egokia da ideia bat azaldu aurretik koadernoan idaztea.
- Ideien alderdi positiboa atera.
- Ideia guztiak baliagarriak eta errespetagarriak direla ulertu, baita huts eginda ere ez dela ezer gertatzen ere.
- Testuari buruzko galderak egin, bai irakasleari, bai gainerako ikasleei. Ulermena errazteko, ikasle bakoitzak testuari buruzko galdera bat egin liezaieke ikaskideei.
- Galdera seriotasunez egin.
- Bakoitzak dere iritziak defendatzen eta besteei kontra egiten ikasi, betiere era egokian argudiatuz.
- Galderak egin ondoren, testua bigarren aldiz irakurri.

Aldi berean, irakasleek ondoko eginkizunak izango dituzte:

- Parte hartzeko eta lotsa gainditzeko mekanismoak sortu.
- Iritziak arbelean idatzi, ordenatu eta laburbildu.
- Irakurzalatasuna bultzatzeko jokoren bat prestatu, ikasgelan lan giro ona sortzeko.

.....

Arlo bakoitzeko berariazko hiztegia ulertzeko ondoko jarduerak burutuko dira:

- Sinonimoak eta antonimoak bilatu.
- Aurrizkiak, atzizkiak, hitzen familiak, eremu semantikoak eta abar aztertu.
- Ulertzen ez diren hitzak azpimarratu.
- Testuinguruko konnotazioak eta denotazioak bilatu, hitzen esanahi desberdinak aztertu...
- Ikasgelan honako materia eduki:
 - Gaztelaniazko hiztegia.
 - Hizkuntzetako hiztegiak.
 - Hiztegi zientifikoak, historikoak, filofikoak eta abar. Baina puntu honetan ez dago adostasunik, irakasle batzuek liburutegian egon behar dutela uste baitute.
 - Mapak, atlasak, argazkiak edo alde aurretik aurreikusi behar diren agiriak.

Ulermena eta mintzamina hobetzeko ondokoa proposatzen dugu:


- Irakasleek ozenki irakurtzea, ikasleen eredu eta erreferente izan daitezen.
- Ikasleen irakurriaren ulermena ebaluatu alde aurretik landutako testuak ozenki irakurtaraziz.
- Ikasleek ere ozenki irakurtzea.
- Adierazteko gaitasuna sustatu testuak irakurtzen.
- Ikasi eta ulertu dituzten terminoak ahoz definitu.

1.5 Datorren ikasturterako proiektuak

Ulermenezko irakurketari buruzko mintegian parte hartu genuen Lodosako «Pablo Sarasate» BHIko irakasleok, eta ondoko erabakiak hartu genituen 2003-2004 ikasturteari begira:

- Irakurketa Plana idazten bukatu eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen iritziei ireki.
- Irakurketa Plana irakasleei, ikasleei eta familiei ezagutarazi.
- KPBri igorri onar dezan.
- Ikastetxearen hezkuntza planetan sartu.
- Plana denboralizatu.
- Plana departamentu didaktikoetan aztertu; ondoren, kurtsoka eta zikloka irakurketa jarduerak prestatzeari ekin.
- Plana ebaluatu eta beharrezkoak diren aldaketak egin.
- Irakurriaren ulermena lantzen jarraitu.
- Irakurketa praktika baliagarri eta errazen bat prestatu, eredugarria izan dadin eta gainerako irakasleak haien arloan irakurriaren ulermena lantzera bultzatu ditzan.

.....



ERANSKINA.

Irakurriaren ulermenaren eredia. PISA proiektua

Ulermenezko irakurketari buruzko mintegian parte hartu genuen irakasleok erabaki genuen Hezkuntza Departamentuak zabalduko PISA proiektuaren ulermenezko irakurketaren kontzeptua hartzea, eta Lodosako «Pablo Sarasate» BHIko Irakurketa Planaren prestaketan erabiltzea.

PISA proiektuak (Ikasleen errendimendu adierazleak sortzeko nazioarteko proiektua) era estandarizatuan ebaluatu nahi du 15 urteko ikasle eskolatuen eskola errendimendua, ulermeneko irakurketa, matematika eta zientzien arloetan. proiektu honetan ELGEko (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea) 32 estatuk hartu dute parte, horien artean Espainia, munduko espezialista onenen gidaritzapean eta horien aholkuek lagundurik.

PISA proiektuak honela definitzen du irakurmena: testu idatziak ulertzea, erabiltzea eta hausnartzea, norberak bere helburuak erdiesteko, ezagutza eta norberaren ahalmena garatzeko eta gizartean parte hartzeko.

Irakurriaren ulermena ezagupen, ahalezia eta estrategia multzo bat da; etengabeko bilakaeran daude eta gizakiek bizitza osoan zehar garatzen dituzte.

PISA proiektuaren ebaluazioak irakurriaren ulermenaren bost alderdi neurtzen ditu:

1. Ulertze orokorra lortu

Horretarako, irakurleak testua bere osotasunean hartu behar du, ikuspegi orokor batetik. Ikasleei eska dakieke, adibidez, testuaren gai nagusia identifikatzeko, horrela testua ulertu dutela erakusteko; mapa edo grafiko baten helburua azaltzeko; testuaren zati bat erlazionatzeko testuaren helburu orokorrari buruzko galdera batekin; edota testuaren erreferentzia zehatz batean baino gehiagotan arreta jartzeko, informazioa kategoriatan zehatz baten errepikapenetik abiatuta gai nagusia ondorioztatuz. Ideia nagusia hautatzeak ideien artean jerarkia bat ezartzea eskatzen du, baita ideia orokor eta nagusienak aukeratzea ere. Ataza honek erakusten digu ikaslea gai den ideia nagusiak eta bigarren mailako xehetasunak bereizteko, edo gai nagusiaren laburpena esaldi edo epigrafe batean antzemateko.

2. Informazioa lortu

Eguneroko bizitzan, irakurleek askotan informazio zehatz baten beharra izaten dute. Telefono zenbaki baten beharra izan dezakete, autobus edo trenen bat noiz ateratzen den ziurtatu nahi izan dezakete, edota baliteke datu zehatz bat aurkitu nahi izatea, besteren baten baieztapen bat onartzeko edo errefusatzeko. Informazioa era eraginkorrean aurkitu ahal izateko, irakurleek informazio garrantzitsua aztertu, bilatu,

.....

aurkitu eta hautatu egin behar dute. Informazioa bilatzea eskatzen duten ebaluazio-atazak burutzeko, ikasleek mezu baten oinarrizko osagaiak identifikatu behar dituzte: izaera, unea, egoera, etab. Galderan emaniko informazioa testuko informazioarekin alderatu behar dute (batzuetan hitzez-hitz azaltzen da informazio bera, besteetan, berriz, antzekoa). Prozesu honek eska lezake antzekoak diren bi informazio-zati alderatu beharra. Atazari zailtasuna ematen dioten osagaiak sistematikoki aldatzen baditugu, ulermenaren alderdi horrekin loturiko gaitasun mailak neur daitezke.

3. Interpretazio bat egin


Alderdi honek irakurleek hasierako inpresioa zabaltzea eskatzen du. Horretarako, informazioa era logikoan prozesatu behar dute, irakurri dutena hobeto ulertu ahal izateko. Alderdi hau ebaluatzen hainbat jarduera burutu daitezke, hala nola, informazioa alderatu eta egiaztatu, testuko bi informazio edo gehiago integratzeko, informazio iturri desberdinen arteko harremanei buruzko ondorioak ateratzeko, eta ebidentzia iturriak identifikatzeko eta aipatzeko, betiere egilearen asmoa ondorioztatzen helburuarekin.

4. Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa

Alderdi honek irakurleari eskatzen dio testuko informazioa beste iturri batzuetatik datozen ezagupenekin uztartzea. Irakurleek testuko baieztapenak baloratu behar dituzte; horretarako, beraiek munduari buruz duten ezagutza kontuan hartuko dute, edo beste ebaluazio-testuetatik ateratako informazioarekin edo galderak ematen dien informazio esplizituarekin alderatuko dute. Askotan, irakurleek gai izan behar dute beraien ikuspuntua justifikatzeko. Prozesu hau ebaluatzen atazak ondokoak izan ohi dira: testuz kanpoko ebidentziak edo argudioak ematea, informazio edo ebidentzia zati zehatzen garrantzia baloratzea, arau moral edo estetiko estandarrekin erkaketak egitea, egilearen ardiugioak indar ditzakeen informazioa identifikatzea eta testuak emandako informazioaren edo ebidentzien balioa ebaluatzea.

5. Testuaren formaren gaineko hausnarketa

Kategoria horretako atazek irakurleari eskatzen diote testutik aldentzea, objektibotasunez kontuan hartzea eta bere kalitatea eta egokitasuna ebaluatzea. Testuaren egitura, testu mota eta tonua bezalako osagaiak ezagutzea oso garrantzitsua da halako atazak burutzeko. Ikasleei eskatzen zaie hizkuntzaren ñabardurak antzematea (adibidez, interpretazio bat zehazterakoan adjektibo jakin bat hautatzearen garrantzia ulertzea). Ebaluazio atazak ondokoak izan ohi dira: testu jakin bat helburu zehatz bat lortzeko baliagarria den erabaki, egile batek testu egitura jakin batzuk helburu bat lortzeko nola erabiltzen dituen baloratu, eta egilearen estiloa eta bere asmoak edo jarrerak identifikatu, edo horiei buruzko iruzkinak egin.



IRAKURKETA SUSTAPEN
SARIAK. BIGARREN SARIA.
CORELLAKO «ALHAMA» BHI,
CINTRUENIGOKO «LA PAZ» DBHI



2002-2003 ikasturtean zehar Corellako Alhama BHlko eta honi atxikitako Cintruenigoko La Paz DBHlko hainbat departamentu didaktikotako irakasle batzuek «Ulermenezko irakurketa DBHko curriculumetik» izeneko eskola liburutegiei buruzko mintegia egin zuten.

Aipatu irakasleen helburua bi ikastetxe horietako irakurketa Planaren oinarriak finkatzea zen, baita hainbat erabaki eta neurri hartzea ere, ondoren gainerako irakasleei azaltzeko.

Abiapuntua oinarritzko ideia hau izan zen: ulermenezko irakurketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumeko teknika edo zeharkako prozedura nagusia da; tresna hori arlo guztietako ezagupenak ikasteko beharrezkoa da, eta ikasleek beharrezkoa dute berau menperatzea, haien ikasketetan nahiz lanbidean arrakasta izango badute.

Prozedura honen garrantzia dela-eta, irakasle hauen ustetan beharrezkoa zen irakasleek gogoeta egitea eta ikastetxeko irakurketa plan bat prestatzea.

Kontuan hartu behar da bi ikastetxe hauek herri desberdinetan daudela eta ezaugarri desberdinak dituztela; horregatik, irakurketa jarduera desberdinak egiteko beharra zuten. Hala eta guztiz ere, irakurketa plana elkarlanean eta era koordinatuan egiten ahalegindu ziren.

2.1 Ulermenezko irakurketari buruzko mintegiko akten laburpena

Lehenengo eta behin, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak argitara emaniko Ebazpenak berridazteari ekin genion, gure ikastetxeen behar eta ezaugarriei egokitzeko.

(527/2002 Ebazpena, *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena*).

Ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzea da helburua, eta hori lortzeko ondoko erabakiak hartu dira:

1. Departamentu didaktiko guztiak bilduko dituen ulermenezko irakurketa plana prestatu.
2. Departamentu guztien oniritzia duten ildo komun batzuk ezarri.
3. Haien arloan ulermenezko irakurketa landu nahi duten irakasle guztiak bildu proiektu honetan.
4. Irakurketari buruzko ideario bat prestatu ikasleendako.
5. Proiektua Koordinazio Pedagogikorako Batzordeari (KPB) aurkeztu, Ikastetxeko Hezkuntz Proiektuan sar dezan.

Helburu hau lortzeko ondoko ekimenak jarri dira abian:

1. Taldeko bi edo hiru kideren arteko bilerak egin, ordutegiaren arabera, eta ondoren bilera orokor bat egin.
2. Azpibatzerdeetan landuko diren gaiak programatu eta sekuentziatu.
3. Taldeko bilera orokorretan azpibatzerdeen lana berrikusi eta behin betiko ondorioak idatzi.
4. Departamentuak *Blitz*, *liburutegiko sagua bildumako Blitz*, *irakurketarekin* sail horiaren I. alean argitara emandako ebazpenak aztertu.
5. Aipatu materiala birmoldatu eta gure ikastetxeetako behar eta ezaugarriei egokitu.

Lan honen emaitza ondokoa izan da:

1. Argibide-foileto bat prestatu dugu. Bertan azaltzen da ulermenezko irakurketa gure hezkuntza eta prestakuntza lanaren ezinbesteko ardatza dela.
2. Foiletoa irakasleen artean zabaldu da.
3. KPBk foiletoaren balorazioa egin du.
4. Irakasleen artean inkesta bat egin da, haien egoera, kezka eta beharrak ezagutzeko.

«Alhama» BHIko Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak (KPB) nola baloratu duen ulermenezko irakurketa planari buruzko foiletoa:

- Natur Zientzietako departamentuak aipatu du III. atalean erabilitako aditzek aginte kutsu handiagoa izan beharko duela.
- Teknologia departamentua parte hartzeko prest dago, eta ideari egokia deritzo.
- Gizarte Zientzien departamentua ados dago ideiarekin, eta udan irakurtzeko liburu gomendagarrien zerrenda prestatzen ari da ikasleendako.
- Orientabide departamentuak irakurriaren ulermenari buruzko materialak utziko dizkigu.
- Atzerriko Hizkuntzen departamentuko irakasleetako batek ulermenezko irakurketari buruzko bere gogoetak azaldu dizkigu, berak katedra eskuratzeko azterketan aurkeztu zuen unitate didaktikotik abiatutako gogoetak, alegia.
- Gaztelania eta Literaturako departamentua aintzindari da gaur egun prozesu honen garapenari dagokionez, eta aurreko urteetako lanari jarraituko zaio.
- Liburutegiaz arduratzen den irakasleak irakurzaletasunaren sustapenari buruzko materialak eta aldizkariak utziko dizkigu.

Datorren ikasturterako egiteke geratzen diren lanak:

1. Ikastetxeko irakurketa planaren behin betiko agiria prestatu.
2. Arlo guztietako material didaktikoa bildu, ikastetxeko irakasleek utzita, ikasgelan irakurriaren ulermenari buruzko jarduerak egiteko.
3. Irakurgaiak arloka hautatu, eta karpeta bat prestatu ulermenezko irakurketari buruz jasotzen diren material eta agiriak gordetzeko.
4. Klaustroko irakasleak motibatzen saiatu.

.....

2.2 Ikastetxeko irakurketa plana zabaltzeko foileto bat prestatu

OHARRA: «Alhama» BHIk eta Cintruenigoko «La Paz» DBHIk ikastetxeetarako agiri bana prestatu zuten, baina edukia aldetik oso antzekoak direnez, batu egin ditugu, errepikapenak sahieste aldera.



*Ondorengoa foiletoaren
atzealdean zegoen*

Letren iraultza

José Ángel Barrueco

Literatoa eleberrri bat idazten amaitzen ari zen ordenagailuan, iraultza hasi zenean.

Teklatuko letrak hatz-mamietan barna igotzen hasi zitzaizkion, izkinetakoetatik hasita (q, a eta z, ezkerraldetik; p eta ñ, eskuinaldetik) eta ordenari jarraiki. Eragin azkarreko pozoina bailiran, letrek bere zainak kutsatu zituzten zeinuen belztasunez, eta besoetan gora jarraitu zuten, gero sorbaldetatik eta lepotik. Pasatzen ziren lekuetan hitz osoak uzten zituzten, eta hitz horiek azala loditu zioten, sepia koloreko pergamino zahar baten itxura izateraino. Esaldiak eta perpausak bere haragiaren gainean pilatuz joan ziren, eta esaera, anatema eta erreferentzia gurutzatuen liburu madarikatu bat osatu zuten. Alferrik saiatu zen hura irakurtzen bere paper bilakatutako gorputzean. Baina gizon bat ezin daiteke liburu izan, eta tintak itoarazi egin zuen.

Literatoa hiltzen ari zen alfonbraren gainean, literaturak eta jakintzak gaixoturik. Orduan letrak teklatura itzuli ziren, otzan, beste biktimaren baten zelatan.

DEKALOGOIA

1. «Alhama» BHIko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHIko Irakurketa Planak ikastetxeko komunitate osoa inplikatu behar du, baita curriculumeko arlo guztietako irakasleak ere.
.....
2. Arloko talde guztien ulermenezko irakurketari lehenetsuna emango diote eguneroko lanean. Horretaz gain, ikasgelan hainbat irakurgai mota landuko dira: testuliburuak, kontsulta liburuak, testu kritikoak, inferentzia testuak edo testu deduktiboak, kritika eta gogoetarako testuak, etab. Testuek zailtasun maila desberdina izango dute.
.....
3. Bai zuzendaritza taldeak, bai eskola kontseiluak Plana lehenetsunezko atazatzat hartuko dute ikasturtero, eta ahal duten heinean, Plana garatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dituzte.
.....
4. «Alhama» BHIko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHIko liburutegiak ikastetxeko eguneroko bizitzan gune nagusia izan behar du ikasleendako eta irakasleendako. Hori dela eta, komenigarria litzateke bertan etengabe norbait egotea, bai ikasleei erantzuteko, bai liburutegiko berariazko lanak egiteko (katalogazioa, kontsulta, maileguak, etab.).
.....
5. Irakurketa Plana ikastetxeko Kalitate Planean txertatu da, irakurriaren ulermena modu sistematikoan landu ahal izateko. Orientabidea eta Tutoretza atalean, hain zuzen ere, sartuko da. Tutoretza saio batzuk ikasleei ikasteknikak irakasteko erabiliko dira. Teknika horiek irakurriaren ulermenarekin eta liburutegiaren funtzionamendurekin lotura dute.
.....
6. Irakurketa Planak ez ditu liburuak bakarrik kontuan hartuko, edozein formatu eta euskarri baizik: aldizkariak, egunkariak, cd-romak, multimedia jokoak, etab.
.....
7. Familiak Irakurketa Planaren ardatz garrantzitsua izan behar du, eta horretarako, ikastetxeko irakurketari buruzko jardueretan parte hartuko dute noizbehinka eta seme-alabak irakurtzera bultzatuko dituzte etxean.
.....
8. Irakurriaren ulermenari buruz hartutako edozein erabakiren berri emango zaio Koordinazio Pedagogikorako Batzordeari, eta honek arloko taldeei jakinarazteko konpromisoa hartuko du.
.....
9. Irakurriaren ulermena arlo guztiak hartzen dituen zeharkako gaia da, eta hainbat eratan landu daiteke: ozenki edo isilpean, protagonismoa irakasleari edo ikasleri emanaz, antzerkiaren bidez edo errezitaldietan, bakarka edo ahots bat baino gehiagorekin, etab.
.....
10. Wittgensteinek esana da «gure mintzairaren mugak gure munduaren mugak dira»; horregatik, «Alhama» BHIko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHIko irakasleok ahaleginak egingo ditugu irakurketa gure mundua zabaltzeko tresnetako bat izan dadin.
.....

IRAKURKETAREN HAMAR AGINDUAK

- I. Ikasteko xedearekin irakurriko duzu, gauza guztien gainetik.
- II. Ez duzu pentsatuko liburuak alferrrikakoak direla, haietan baitago munduko jakinduria guztia.
- III. Liburuaren eguna ospatuko duzu.
- IV. Cervantes, Shakespeare eta liburuen bidez beren jakintza eta sentimenduak eskaini dizkizuten ehundaka idazle ohoratuko dituzu.
- V. Ez dituzu testuak *hilko* azpimarratutakoa edo letra lodian agertzen dena bakarrik irakurriz (hitz edo esaldi isolatu horiek ez dute inolako zentzurik).
- VI. Ahal duzun guztietan ozenki irakurriko duzu, horrek irakurtzen ari zarenari entonazio egokia eta zentzua ematen lagunduko dizu.
- VII. Irakurtzeari ekiten diozun bakoitzean papera eta arkatza izango dituzu eskura, gauza garrantzitsuak edo zalantzak jasotzeko.
- VIII. Hiztegia eskura izango duzu beti. Esaldiak ulertzen lagunduko dizun laguna duzu.
- IX. Liburuak zainduko dituzu; bai zureak, bai zureak ez direnak.
- X. Liburutegia erabiliko duzu zure jakinduria handitzeko.

.....

Hamar agindu hauek bitan laburbiltzen dira: ulertuz irakurri behar duzu, eta horrela gaindituko duzu.

ULERMENEZKO IRAKURKETA ETA BERARIAZKO HIZTEGIA LANTZEKO ORIENTABIDEAK, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ARLO GUZTIETARAKO

- I. **«Alhama» BHiko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHiko irakasleen iritziz, testuen ulertzeak eguneroko lana eta ohiko ariketa izan behar du arlo guztietan, ondoko arrazoiengatik:**
 - a) Arlo bakoitzeko curriculum testu idatzien bidez (testuliburuak, laguntza materiala, informazio bibliografikoa) garatzen da. Hori dela eta, ulermenezko irakurketa ez da eduki berri bat, ikasleen prestakuntza kultural eta integralaren bizkarrezurra baizik.
 - b) Ez dagokio Hizkuntzaren arloari soilik, arlo guztiei baizik, bai zientifikoei bai zientifikoak ez direnei.

- c) Arlo bakoitzeko berariazko hiztegia eta hizkera berezia ikastea eta ulertzea errazten du. Horrela, ikasleek arloko kontzeptuak zehaztasunez eta zorrotzasunez erabiltzen ikasiko dute eta hizkuntz erregistroak aberastuko dituzte.
- d) Hizkuntzak, ahozkoak nahiz idatziak, baldintzatzen du curriculuma, eta irakasgaietako ezagutzak hitzen bidez artikulatzen dira hein handi batean. Horretaz gain, ikasleek ez badituzte testu idatziak ulertzeko teknikak menperatzen, ezagupenak eskuratzeko eta garapen pertsonalerako aukera gutxiago izango dituzte.

II. «Alhama» BHiko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHiko irakasleen iritziz, testuak ulertzeko eta garapen pertsonalerako oso lagungarria da ozenki irakurtzea, eta arlo guztietan landu behar da, ondoko arrazoiengatik:

- a) Ozenki eginiko irakurketa adierazkor egoki batek testua ulertu dela adierazten du, horregatik garrantzitsua da edozein egoera baliatzea ozenki irakurtzeko, ikasleak hortara ohi daitezten.
- b) Bigarren Hezkuntzan testuak konplexuagoak izaten dira eta ikasteko estrategia berriak eskatzen dituzte.
- c) Ozenki irakurtzea ahoskera, entonazioa eta abar zainduz lagungarria da edozein gairi buruz era egokian mintzatzeko.
- d) Ikasleari laguntzen dio ziurtasuna handiagoa izaten egoera formaletan.

III. «Alhama» BHiko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHiko irakasleen iritziz, arlo bakoitzeko ikaskuntza esanguratsua arlo horretako testuen ulermenezko irakurketaren bidez egin daiteke, hori ezinbestekoa baita ikasleek arlo bakoitzeko kontzeptuak ulertu, eurenganatu eta gogora ditzaten. Hori dela eta:


- a) Ikusentzunezkoak edo bestelako baliabideak erabiltzen direnean, jarduera didaktikoak eta gidoiak prestatuko dira hitzezko eta hitzezkoak ez diren kodeen interpretazioa errazteko.
- b) Testuliburua aukeratzeraoan, ondokoak hartuko dira kontuan: arloko helburuen neurrikoa den, erabilitako metodologia eta zein neurritan laguntzen dion irakurriaren ulermenari.
- c) Eskolak prestatzeak eskatzen du, halaber, unitatearen egitura aztertzea eta ikasleei ikasteknika egokiak transmititzea, proposaturiko ezagupenak ikas ditzaten.
- d) Hiru irakurketa mota erabili behar dira: aurretiazkoa, mantsoa eta laburpenezkoa; bakoitza komeni denean. Hona hemen:
 - Aurretiazko irakurketa: gaien hurbilpen orokorra egitea du helburu. Komenigarria da irakurketa gako batzuk prestatzea (gaiaren egitura, galderak, kontzeptuen arteko loturak...) ikasleei gaia era egokian ezagutarazteko.
 - Irakurketa mantsoa: testuaren edota ikasgaiaren zati guztiak ulertzen laguntzen du eta irakurketa analitikoa da. Prozesu horretan esku hartu behar da eta ikasleari lagundu behar zaio. Komenigarria da testuak ikasgelan irakurri eta xehatzea, azpimarratzearen, eskemen, laburpenen, mapa kontzeptualen eta abarren bidez.

.....

- Laburpenezko irakurketa: norberaren sortze lana du helburu, baita kontzeptuez eta haien arteko loturez era esanguratsuan jabetzea. Unitatearen eduki esanguratsuenak eta unitate desberdinetako kontzeptuen arteko loturak gogoan hartzea bultzatu behar du.
- e) Ulermenezko irakurketa hainbat prozedura onartzen dituen prozesua da, hala nola, ahozko azalpena, idazlanak, ozenki irakurtzea...
- f) Liburutegia, zalantzarik gabe, arlo guztietako ikaskuntzari eta ikasleen hezkuntza berdintasunari laguntzen dion baliabide zentro bat da. Erabil dezagun, aberastasun iturria baita.

IV. «Alhama» BHiko eta Cintruenigoko «La Paz» DBHiko irakasleen iritziz, arlo bakoitzak berariazko hizkera eta hiztegi zehatza dauzka; hori dela eta:

- a) Lkasleei irakatsiko zaie jakintzaren eremu bakoitzeko terminologia egokia ezagutzen eta erabiltzen, pixkana-pixkana zehaztasunez erabil dezaten.
- b) Lrlo bakoitzeko oinarritzko terminoen zerrenda prestatuko da; horren helburua ikasleen irakurmenak eta ulermen kontzeptualak zer bilakaera duten behatzea izango da.
- c) Lzinbestekoa da kontzeptu guztien esanahia argi eta garbi izatea, ez bakarrik ulertzeko, baizik eta gure ahozko zein idatzizko hizkuntzan ere erabiltzeko.
- d) Lkasturte bakoitzeko programazioan arlo bakoitzeko oinarritzko terminoek agertu behar dute. Komenigarria da ikasleek termino horiekin glosario bat prestatzea, euren hitz ulergarriekin idatzita.
- e) Lkasleei terminoen jatorri etimologikoa eta bilakaera historikoa ezagutarazi behar zaizkie, haien kultura aberas dezaten eta arlo guztietako ezagutzen arteko loturak errazago ezar ditzaten.



2.3 Ikastetxean irakurketa nola lantzen den aztertzeko galdetegia

Irakurketaren egoera aztertzeko ondoko galdetegia banatu zen irakasleen artean:

1. Uztailaren 15eko 583/2002 Ebazpenak ezarri zuen arloko ulermenezko irakurketaren eta berariazko hiztegiaren tratamendua modu integral batez sartuko dela etapako curriculumeko arlo guztietako programazioetako helburu, eduki eta ebaluazio irizpideetan. Ezagutzen al duzu ebazpen hori?

BAI EZ

2. Zure arloko curriculuma ulermenezko irakurketa kontuan hartuz garatzen al duzu (liburu edo testu osagarriak irakurri, arloko berariazko terminoen glosarioa prestatu, etab.)?

BAI EZ

3. Ba al dakizu ikastetxean Ulermenezko Irakurketa Mintegi bat dagoela eta mintegi hau Natur Zientzien arloko eta Gaztelania eta Literaturaren arloko hainbat irakaslek osatzen dutela?

BAI EZ

4. «Alhama» BHIko eta «La Paz» DBHIko irakasleek mintegi horretan prestatu duten ulermenezko irakurketari buruzko foiletua iritsi al zaizu?

BAI EZ

5. Irakurri baduzu, zure arloan praktikan jar daitekeela uste al duzu?


BAI EZ

6. Marka itzazu gurutze batekin zure arloan maiz egiten dituzun ulermenezko irakurketari buruzko jarduerak:

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> Ozenki irakurri | <input type="checkbox"/> Ikaslearen ulermena eta adierazpena berrikusi |
| <input type="checkbox"/> Azpimarratu | koadernoaren bidez |
| <input type="checkbox"/> Eskemak eta/edo mapa kontzeptualak prestatu | <input type="checkbox"/> Liburutegia erabili |
| <input type="checkbox"/> Laburpenak egin | <input type="checkbox"/> Jarduera osagarriak edota eskolaz kanpokoak egin aurretiko eta ondorengo lana |
| <input type="checkbox"/> Arloko berariazko terminoen glosarioa | |
| <input type="checkbox"/> Askotariko testuak landu (entziklopediak, prentsa...) | |
| <input type="checkbox"/> Ahozko azalpena | |
| <input type="checkbox"/> Arloarekin lotura duten liburuak irakurri | |
| <input type="checkbox"/> Erabilitako ikusentzunezko materialari buruzko gidoiak eta lanak | |

7. OHARRAK:

.....







sorta **Urdina**

Blitz **Hezkuntza** **Departamentua**

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Saillapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumean**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa.**
ABIES 2.0 programa

sorta **Berdea**

Blitz **Eskolan**

1. **MARIANO CORONAS**
Eskolako liburutegia
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. **VÍCTOR MORENO**
Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak
3. **VILLAR ARELLANO YANGUAS**
Liburutegia eta ikaskuntza autonomia
Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. **M^a JESÚS ILLESCAS**
Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu
Erabiltzaileak iprestatzen (inprimatzekoa)

sorta **Horia**

Blitz **irakurtzearen alde**

1. **Ulermenezko irakurketa**
eskola curriculumean
Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. **JESÚS AMADO MOYA**
Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. **VÍCTOR MORENO**
Leer para comprender
(ez dago euskarazko bertsiorik)
5. **ÁNGEL SANZ MORENO**
Nola itxuratu ulermenezko irakurketarako jarduerak
6. **Nola prestatu ulermenezko irakurreta plana DBH-ko institutu batean**
Bi adibide praktikoa

BLITZ
Liburutegiko sagua